

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Altzako kiroldegiaren inguruko errepide-sarea hobetzeko lanak esleitzeko espedientea onartuta**

*Lizitazioaren prezioa 1,1 milioi eurokoa da eta enpresa esleipendunak 8 hilabete izango ditu lanak egiteko*

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Altzako kiroldegiaren inguruko errepide-sarea hobetzeko lanak esleitzeko espedientea. Donostiako alkate Eneko Goiak esan du, lan hauek martxoan bertan behera utzi zirela osasun krisiak eragindako egoerak sortutako zuhurtzia ekonomikoaren ondorioz. Orain, esleipenari berriro ekiten zaio, eta helburua da lanak 2021eko irailean amaituta egotea. Data horretan aurreikusita dago Altzako kiroldegi berria martxan egotea.

Lan hauek bereziki galtzadak eta espaloiak zolatzeko eta zerbitzu-sare batzuk birmoldatzeko dira. Horiek horrela, Darieta bidean aparkalekuaren aurrealde osoa birmoldatuko da. Halaber, Berra bidean sartzeko biribilgune bat egingo da, eta beraz, Berra bideko errepidean zein espaloi zati batean lanak egingo dira.

Kontratuaren lizitazio prezioa 1.193.818 eurokoa da eta enpresa esleipendunak 8 hilabeteko epea izango du lanak egiteko.

#### **Gabonak Zuretzat**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du 2020-2021 Gabonak Zuretzat programa egitea. Programa hau haurrei zuzenduta dago, Donostia Gazteriak antolatzen du gabonetan, eta aurten, COVID19ak sortutako osasun egoerari egokitu da.

Programa hau egiteko aurrekontua 31.650 eurokoa da.

#### **Oberan mendian zuhaitz aldaketa**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Oberan mendian zuhaitz aldaketa egiteko proiektua. Aiako Harria Parke Naturalean kokatuta dago Oberan eta Donostiaren jabetzakoa da.

Duela hamarkada batzuk sinatutako hitzarmen baten ondorioz, hainbat kanpoko espezie landatu ziren, eta orain mozteko garaia iritsi da. Hortaz, Udalak libre gelditu den lurra berriro landatu behar du. Eta lur horiek malda handia dute eta, beraz, higadura murrizteko, lehenbailehen landatu behar da.

Quercus robur haritzarekin landatuko da, betiere, Agrestas Scoop enpresaren proiektua jarraituz. Enpresa honek Udalaren Ingurumen departamentuak eskatuta egin du proiektua.

Proiektuaren aurrekontua 36.913 eurokoa da eta zuhaitz landaketa egiteko epea 5 hilabetekoa izango da.